



### 4.3. DIRULAGUNTZA LERROA: LAN MUNDUAN EUSKAREN ERABILERA, EZAGUTZA ETA IKUSGARRITASUNA SUSTATZEA – 2025 OINARRI ESPEZIFIKOAK.

#### 1. Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, saltoki eta enpresetan euskararen erabilera, ezagutza eta ikusgarritasuna sustatzeko egitasmoak burutzeagatik; hala nola errotulazioa, eta bestelako euskarri gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...), web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak, esate baterako .eus domeinua ezartzea. Lehiarik gabeko edo elkarren segidako konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

#### 2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa

Euskara ikasteagatik emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2025ko aurrekontuko partidaren kontura izango da.

1030.471.01.335.10 – Dirulaguntzak: Lan munduan euskararen erabilera, ezagutza eta ikusgarritasuna sustatzea 7.500 €.

Dagokion kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Oro har, dirulaguntzaren zenbateko osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntzak edo laguntzak batuta.

#### 3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era

Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte –Erreterian errotutako (egoitza fisikoa edo soziala Erreterian izatea edo lana udalerrian egitea) edozein pertsona fisiko edo erakunde juridiko pribatuek.

3.1.- Enpresa eta saltokietako errotulazioari eta bestelako euskarri gaineko idatziei (txantilloiak, informazio orriak...) dagokionean, honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Testua zuzen idatzita egotea.
- b) Jarduera euskaraz izendatzea, nahiz eta saltoki edo enpresaren izena gaztelaniaz egon.
- c) Jarduera idatzita ez agertzea baina establezimenduaren izena euskaraz egotea.

Errotuluan izena, abizena edo izen-abizena besterik agertzen ez badira, eskaera hori ez da diruz lagunduko.

3.2.- Web orriak sortu eta teknologia berriei dagokienean, honako baldintzak bete beharko dira:



a) Orriaren eduki guztiak euskaraz egotea. Horretaz gain, orria beste hizkuntza batean ere egon daiteke.

Orriaren eduki guztietan, hitzezkoetan zein irudi bidezkoetan, euskarazkoetan zein gaztelaniazkoetan, hizkuntzaren erabilera bateratzailea egitea, hizkera sexista, homofoboa eta xenofoboa baztertuz.

b) Testua zuzena eta kalitatezkoa izan behar da.

c) Edukien artean legeak babestutakorik agertzen bada, eskatzaileak dagokion baimena edukitzea.

d) Web orria erabat osatuta egotea eskaria egiten den unean.

3.3.- **.eus** domeinua ezartzeari dagokionez, azkeneko kuota ordainduko da eta ordainketa bakarra izango da.

3.4.- Euskararen ikusgarritasun eta sentsibilizazioarekin zerikusia duten egitasmoak inplementatzea. Hauen egokitasuna Udal Hizkuntza Politika sailak baloratuko du.

Ezin izango dute dirulaguntzaren onuradun izan Errenteriako Udalak 2025 urtean eta 2025-2026 ikasturtean dirulaguntzak emateko oinarri orokorren laugarren oinarrian jasotakoari jarraiki, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak.

#### 4.- Eskararekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute, ondorengo dokumentuekin batera:

a) Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

b) Faktura. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako, lanak amaituta eta fakturatuta egon behar dira. Ez da aurrekonturik onartuko, ezta proforma fakturarik ere.

c) Fakturen ordainagiria.

a) Errotuluan edo web orrian azaltzen den testua (errotulazio eta web orriaren kasuan)

b) Errotuluaren argazkia establezimenduan. (Errotulazioaren kasuan)

c) Egitasmoaren memoria eta aurrekontua (enpresa barruan euskara ikusgarri egiteko jardueren kasuan)

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa



egunean izatearen kontsulta

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

### 5.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2025ko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra izango da, biak barne.

### 6.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.

6.1.- Establezimendu komertzialen errotulaziorako eta bestelako euskarrien gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...), eta web orrientzako, gehieneko zenbatekoak hauek izango dira:

Establezimenduaren errotulua/web orria euskaraz badago, kostuaren % 50, eta gehienez ere 500,00 euro.

Establezimenduaren errotulua/web orria ele-bietara badago, % 25, eta gehienez ere 250,00 euro.

Ez da diruz lagunduko web orriaren mantentze lanik.

6.2. Diruz lagunduko dira herritarrei zerbitzua euskaraz ematearren egiten diren inbertsioak, bai informatika mailan baita aplikazio eta teknologia berrietan ere. Dirulaguntza kostuaren % 50 izango da, eta 500,00 euro gehienez ere.

6.3. **.eus** domeinua ezartzeari dagokionez, 2 urteko kuota ordainduko da.

6.4. Enpresa barruan euskara ikusgarri egiteko jarduera integralak aurrera eramaten dituen enpresa bakoitzari egitasmoaren kostuaren % 25eko dirulaguntza emango zaio, 2.000,00 euroko mugarekin.

### 7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi den xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean, eskabidean adierazitako kontuan egingo den diru-sarrera bidez. Eskaera guztiak aurkezteko epearen azken egunetik aurrera ebartziko dira.

**Ohar garrantzitsua:** deialdi hau egin da ERRENERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.